



**EUROPAKO GUTUNA EMAKUMEEK ETA
GIZONEK TOKIAN TOKIKO BIZIMODUAN
IZAN BEHAR DUTEN BERDINTASUNERAKO**

**Gutun honen bidez, tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek euren
eskumenak eta euren bazkideenak erabiliko dituzte berdintasun
handiagoaren alde**

**Egilea eta sustatzailea:
Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseilua eta bere bazkideak**

SARRERA

Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutuna Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuentzako da. Izan ere, sinatzera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu.

Konpromiso horien ezarpena bermatzeko asmoz, gobernu sinatzaile bakoitzak berdintasunerako ekintza-plana idatzi beharko du, lehentasunak, ekintzak eta baliabideak zeintzuk diren zehazteko.

Horrez gain, agintaritza sinatzaileak bere lurraldeko erakunde eta instituzioekin batera lan egingo du, benetako berdintasunaren egiazko ezarpena sustatzeko.

Gutuna bera Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak garatutako proiektuaren (2005-2006) esparruan idatzi da, bazkide ugariaren laguntzaz. Beherago, euren zerrenda agertzen da. Proiektuak Europako Batzordearen babesa eduki zuen, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 5. Ekintza Egitasmo Bateratuaren esparruan.

* * * * *

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna pertsona guztien oinarrizko eskubidea da, eta, horrez gain, demokraziarako funtsezko balioa ere bada. Behar den moduan bete dadin, eskubide hori legearen arabera onetsi beharra dago. Era berean, eraginkortasunez erabili behar da, eta bizitzako alderdi guztiak inplikatu behar ditu: politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak.

Onespen formal ugari gertatu arren eta aurrerapen handiak egin arren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oraindik ez da egiazkoa eguneroko bizimoduan. Praktikan, emakumeek eta gizonek ez dituzte eskubide berberak. Desberdintasun politikoek, ekonomikoek eta kulturek bere horretan diraute (esate baterako, soldaten arteko alde handiak eta politikan daukaten ordezkariak txikiagoa).

Desberdintasun horiek familian, hezkuntzan, kulturen, komunikabideetan, lan-munduan, gizarte-antolamenduan... dauden estereotipo ugarietan oinarritutako gizarte-egituren emaitza dira. Hala ere, badago arlo horietan guztietan jarduterik. Horretarako, hurbilketa berria garatu eta egiturazko aldaketak egin besterik ez dago.

Tokian tokiko eta eskualdeko agintariak biztanleengandik hurbilen dauden gobernu-esparruak direnez, esku hartzeko maila egokienak dira, desberdintasunen iraupenari zein ugalketari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartea sustatzeko. Euren eskumenen eremuan, tokian tokiko eragile guztien laguntzaz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintza zehatzak jarri ditzakete abian.

Horrez gain, subsidiarotasunaren printzipioak ere zeresan handia dauka emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea ezartzeko orduan. Printzipio hori, hain zuzen ere, gobernu-maila guztietan ezartzen da (Europa mailan, nazio-mailan zein tokian-tokian).

Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek arlo askotako erantzukizunak dituztenez, guzti-guztiek zeregin positiboa izan dezakete eta izan behar dute, berdintasuna pertsonen eguneroko bizimoduan eragina duten ekintzen bidez sustatu ahal izateko.

Tokian tokiko eta eskualdeko autonomiaren printzipioek lotura estu-estua daukate subsidiarotasunaren printzipioarekin. 1985ean Europako Kontseiluak Tokian Tokiko Autonomiari buruz egindako Gutuna Europako estatu gehienek sinatu eta berretsi zuten. Bertan adierazitakoaren arabera, "legearen esparruan, euren erantzukizunpean eta bertako biztanleen mesedetan, tokian tokiko kolektibitateek gai publikoen zati handi bat arautzeko eta administratzeko eskubide eta gaitasun eraginkorra daukate." Berdintasunerako eskubidearen ezarpena eta sustapena, beraz, tokian tokiko autonomiaren kontzeptu horren bihotzean egon behar dira.

Tokian tokiko eta eskualdeko demokraziari esker, ahalik eta erabaki egokienak hartu behar dira eguneroko bizimoduko alderdi zehatzenetan. Horra hor etxebizitza, segurtasuna, garraio publikoak, lan-mundua edo osasuna.

Era berean, emakumeak tokian tokiko eta eskualdeko politiken garapenean nahiz ezarpenean bete-betean inplikatzeko badira, bizi izan dituzten esperientzietan oinarritutako ezagutzak eta sormena hartu ahal izango dira kontuan.

Berdintasunean oinarritutako gizartea ezartzeko, ezinbestekoa da tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek generoaren dimentsioa bete-betean sartzeko euren politiketan, antolamenduan eta jardueretan. Gaur egungo eta etorkizuneko munduan, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna badago, arrakasta izango dugu arlo ekonomikoan zein sozialean (Europa mailan edo nazio-mailan ez ezik, gure eskualdeetan, hirietan eta udalerrietan ere bai).

* * * * *

Badira hainbat urte Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak eta Tokian Tokiko eta Eskualdeko Emakume Hautetsien Lantaldeak buru-belarri lan egin dutela, tokian-tokian zein eskualde-mailan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko. 2005. urtean, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak (EUEK) Europako tokian tokiko eta eskualdeko agintarientzako tresna sortu zuen, berdintasunaren aldeko hiria, alegia. Europako zenbait hiri eta udalerriren jarduera egokiak zehaztu ondoren, "berdintasunaren aldeko hiriak" metodologia zehatza proposatzen du, tokian-tokian zein eskualde-mailan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzeko asmoz. Osteko gutuna lan horretan oinarrituta dago.

Tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek berdintasunaren sustapenean zeukaten zeregina baieztatuta geratu zen Hirien eta Toki Agintarien Nazioarteko Batasunak (HTANB) 1998. urtean toki-gobernuan egon beharreko emakumei buruz egindako Munduko Adierazpenean. Munduko erakunde berrian ere, Bat egindako Hiriak eta Toki Gobernuak erakundean, hain zuzen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna da helburu nagusietako bat.

HITZAURREA

Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuen ordezkaria den Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak eta bere bazkideek:

Bulgariako Errepublikako Udalen Elkarte Nazionala

Zipreko Udalen Batasuna

Txekiar Errepublikako Hirien eta Udalerrien Batasuna

Finlandiako Tokian Tokiko eta Eskualdeko Botereen Elkarte

CCREko Elkarte Frantsesa (AFCCRE)

CCCREko Sekzio Alemana (RGRE)

Greziako Hirien eta Udalerrien Batasun Zentrala (KEDKE)

Hungariako Toki Agintaritzen Elkarte Nazionala (TÖOSZ)

CCREko Elkarte Italiarra (AICCRE)

AICCREko Federazio Toskanarra

Luxenburgoko Hirien eta Udalen Sindikatua (SYVICOL)

Poloniako Hirien Elkarte

Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioa (FEMP)

Euskadiko Udalen Elkarte (EUDEL)

Cartagenako Udala (Espainia)

Valentziako Udala (Espainia)

Menoko Francforteko Udala (Alemania)

Saint Jean de la Ruelleko Udala (Frantzia)

Vienako Udala (Austria)

Belfort-Montbéliardeko Denbora eta Mugikortasun Agentzia (Frantzia)

Tokian Tokiko eta Eskualdeko Erakundeen Garapenerako Lankidetzaren Euromediterraneorako

Lantalde Iraunkorra (COPPEM)

Europako Erkidegoa eta Europar Batasuna askatasunen eta oinarrizko eskubideen errespetuan oinarrituta daudela (bertan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapena hartzen da kontuan) eta Europako legeria Europan arlo horretan lortutako aurrerapenen oinarria izan dela **gogoratuta**.

Nazio Batuen giza eskubideen nazioarteko esparru juridikoa, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Emakumeen aurkako Era guztietako Bereizkeria Desagertzeko Hitzarmena (1979) **gogoratuta**.

Europako Kontseiluak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren zein toki-autonomiaren sustapenean egin duen ekarpen handia **azpimarratuta**.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzeko, honako hiru alderdi osagarri hauetan jardun beharra dagoela **kontuan hartuta**: desberdintasun zuzenen desagertzea, zeharkako desberdintasunen desagertzea eta berdintasunezko demokraziaren garapen proaktiborako ingurune politiko, juridiko eta sozialaren sorrera.

Berdintasunerako eskubidearen "de jure" onespeneraren eta bere benetako ezarpen eraginkorraren artean dagoen desoreka **gaitzetsita**.

Euren erantzukizunpeko arlo guztietan berdintasunerako eskubidea, emakumeen eta gizonen artekoa, batez ere, ezartzeko orduan, Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek biztanleentzat eta hiritarrentzat oso garrantzitsua den zeregina garatzen dutela eta garatu behar dutela **kontuan hartuta**.

Erabakiak hartzeko prozesuetan eta zuzendaritza-postuetan emakumeen eta gizonen partaidetza eta ordezkartza orekatuak egotea demokraziarako funtsezkoa dela **aintzat hartuta**.

Gure ekintzetan, honako hauexek **kontuan hartuta**: Emakumeen aurkako Era guztietako Bereizkeria Desagertzeko Hitzarmena (1979); Pekingo Adierazpena; Nazio Batuen Ekintzarako Plataforma (1995); 2000ko Batzar Nagusiko 23. bilera bereziko ebazpenak (Pekin+5); Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna; Kontseiluak 1996. urtean emakumeek eta gizonen erabakiak hartzeko orduan izan behar duten partaidetza orekatuari buruz emandako gomendioa; eta Udalen eta Toki Agintaritzen Nazioarteko Batasunak toki-gobernuan egon beharreko emakumei buruz egindako Munduko Adierazpena (1998).

Nazio Batuek Emakumeen aurkako Era guztietako Bereizkeria Desagertzeko egindako Hitzarmena 1981eko irailean indarrean sartu zenetik 25 urte igaro direla nabarmendu **nahian**.

Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Europako Gutuna idatzi dute, eta, bertan, Europako tokian tokiko zein eskualdeko gobernuek gonbidatzen dituzte gutuna sinatzera eta abian jartzera.

LEHENENGO ZATIA

PRINTZIPIOAK

Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako Gutun hau berresten dugunok geure ekintzen oinarritzko printzipioak onesten ditugu.

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oinarritzko eskubidea da.

Tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek euren erantzukizunpeko arlo guztietan ezarri behar dute eskubide hau. Era berean, era guztietako bereizkeria, zuzena zein zeharkakoa, desagerrarazi behar dute.

2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ziurtatzeko, bereizketa anitza eta desabantaila hartu behar dira kontuan.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jorratzeko orduan, bereizkeria anitza eta desabantaila hartu behar dira kontuan, generoari buruzkoaz gain, eta honako hauexek izango dituzte oinarri: arraza, kolorea, jatorri etnikoak eta sozialak, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo sinesmenak, iritzi politikoak edo beste edozein iritzi, gutxiengo nazional bateko kide-tza, jabetza, jaiotza, elbarritasuna, adina, orientazio sexuala edo maila ekonomikoa.

3. Gizarte demokratikoan, ezinbestekoa da emakumeek eta gizonen orekaz parte hartzea erabakiak hartzeko prozesuetan.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzeko, tokian tokiko eta eskualdeko agintariak behar besteko neurriak eta estrategia egokiak jarri behar dituzte abian, erabakiak hartzeko arlo guztietan emakumeen eta gizonen partaidetza eta ordezkartza orekatuak izan daitezzen.

4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezartzeko, ezinbestekoa da genero-estereotipoak desagertzea.

Tokian tokiko eta eskualdeko agintariak emakumeen izaeraren eta jarreraren arloko desberdintasunen oinarri diren estereotipoak eta oztipoak desagerrarazi behar dituzte, emakumeek eta gizonen arlo politikoan, ekonomikoan, sozialean eta kulturean garatzen dituzten zereginen balioespen desberdina bultzatzen dutelako.

5. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko, ezinbestekoa da generoaren dimentsioa tokian tokiko eta eskualdeko gobernuen jardura guztietan kontuan hartzea.

Generoaren dimentsioa politiketan eta tokian tokiko biztanleen bizimoduan eragina duten metodoetan eta tresnetan hartu behar da kontuan. Esate baterako, generoaren ikuspegia politika¹ guztietan kontuan hartzeko teknikak jarri beharko lirake abian, eta

generoa bera aurrekontuak² egiteko eta aztertzeko orduan hartu beharko litzateke kontuan. Horretarako, emakumeen toki-bizimoduaren esperientzia, bizi-baldintzak eta lan-baldintzak aztertu eta aintzat hartu behar dira.

6. Baliabide egokidun ekintza-planak eta programak beharrezko tresnak dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko.

Tokian tokiko eta eskualdeko gobernuek behar besteko finantza eta giza baliabideak dauzkaten ekintza-planak eta programak egin behar dituzte.

Hirugarren Zatian azaldutako artikulua, hain zuzen ere, printzipio horietan daude oinarrituta.

*1 **Mainstreaming:** 1997ko uztailan, Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak (ECOSOC) honelaxe azaldu zuen mainstreamingaren kontzeptua: "Generoa zeharkako bihurtzeko, emakumeek eta gizonen plangintzapeko ekintza guztietan dituzten inplikazioak ebaluatu behar dira, eta, horrez gain, legeria, prozedurak edo programak hartu behar dira kontuan arlo guztietan eta maila guztietan. Estrategia horri esker, emakumeen eta gizonen kezak eta esperientziak hartuko dira kontuan, arlo politiko, ekonomiko eta sozial guztietako prozedurak eta programak ezarri, kontrolatu eta ebaluatzen direnean. Horiek horrela, onura berberak izango dituzte, eta ez da desberdintasuna betiketuko."*

*2 **Gender budgeting:** Generoaren ikuspegia aurrekontuen prozesuan sartzen denean, bete-betean hurbiltzen gara emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera, aurrekontuen prozesuan bertan. Horren ondorioz, generoaren ikuspegia kontuan hartuta ebaluatu behar dira aurrekontuen prozesuko maila guztietan dauden aurrekontuak, eta, era berean, diru-sarrerak zein gastuak berregituratu behar dira, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko asmoz.*

BIGARREN ZATIA

GUTUNAREN ETA BERE KONPROMISOEN EZARPENA

Sinatzaileek honako neurri berezi hauek hartuko dituzte, gutun honetan xedatutakoa ezartzeko orduan:

1. Sinatu osteko zentzuzko epean (epea ez da bi urtetik gorakoa izango), gutun hau sinatzen duen tokian tokiko edo eskualdeko gobernuak berdintasunerako ekintza-plana egin eta egokitu egingo du, eta, ondoren, ezarri egingo du.
2. Berdintasunerako ekintza-planean bertan, gobernu sinatzailearen helburuak, lehentasunak, neurriak eta baliabideak zehaztuko dira, gutuna eta bere konpromisoak eraginkorrak izan daitezen. Era berean, ezarpenerako proposatutako egutegia ere agertuko da planean bertan. Sinatzaileak berdintasunerako ekintza-planik badauka, berrikusi egingo du, gutunean adierazitako eduki guztiak jorratu egiten direla bermatzeko.
3. Gobernu sinatzaile bakoitzak galdeketa zabalak egingo ditu, berdintasunerako ekintza-plana onartu baino lehen, eta zabaldu egingo du, onartu ondoren. Horrez gain, planaren ezarpenean egindako aurrerapenen berri eman beharko du jendaurrean, aldian-aldian.
4. Sinatzaile bakoitzak berdintasunerako ekintza-plana berrikusiko du, inguruabarren arabera egokia izanez gero, eta plan osagarria egingo du hurrengo epealdiari begira.
5. Hasiera batean, sinatzaile bakoitzak ebaluazio-sistema egokian parte hartuko du. Izan ere, idatzi egingo da, gutun honen ezarpenaren aurrerapenen jarraipena egiteko eta Europako tokian tokiko zein eskualdeko erakunde betearazleei emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa lortzeko bitarteko eraginkorreki buruzko ezagutzak euren artean trukatzeko laguntzeko. Horretarako, berdintasunerako ekintza-planak eta kasuan kasuko beste agiri publiko batzuk egon beharko dira eskuragarri.
6. Sinatzaile bakoitzak Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluari idatziz jakinaraziko dio gutuna ezarri duela, noiz berretsi duen eta noren ardurapean egongo diren harremanak gutunaren inguruko etorkizuneko lankidetzak guztia bermatu ahal izateko.

HIRUGARREN ZATIA

ERANTZUKIZUN DEMOKRATIKOA

1. artikulua

1. Gobernu sinatzaileak onetsi egiten du berdintasunerako eskubidea demokraziaren alde aurretiko eta oinarritzko baldintza dela eta gizarte demokratikoak ezin dituela albo batera utzi emakumeen gaitasuna, ezagutzak eta sormena. Ondorio horietarako, berdintasuna oinarritzat hartuta, bermatu egin behar du beste leku batzuetako eta adin-talde desberdinetako emakumeek erabaki politikoak eta publikoak hartzeko prozesu osoan parte hartzen dutela eta bertan ordezkatura daudela.

2. Beraz, demokraziaren bidez biztanleen eta lurraldearen ongizatea sustatzeko aukeratua izan denez, sinatzaileak eskubide horren ezarpena bultzatu behar du jarduera-arlo guztietan, toki-erkidegoaren ordezkari demokratikoa, zerbitzuen hornitzailea eta komandataria, plangintzagilea, arautzailea eta enplegu-emailea delako.

ZEREGIN POLITIKOA

2. artikulua – Ordezkaritza politikoa

1. Gobernu sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonen bozkatzeko, hautagaiak izateko eta hautetsiak izateko eskubide bera daukatela.

2. Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonen politiken sorreran zein ezarpenean parte hartzeko, aginte publikoa edukitzeko eta gobernuko maila guztietako eginkizunak betetzeko eskubide bera daukatela.

3. Sinatzaileak onetsi egiten du ordezkaritza orekatua izan behar dela erabaki publikoak hartzeko prozesuan parte hartzen duten erakunde hautetsi guztietan.

4. Sinatzaileak behar besteko neurri guztiak hartuko ditu, lehen aipatutako eskubideak eta printzipioak defendatzeko eta babesteko. Horrez gain:

- Emakumeei eskatuko die hauteskundeetako zerrendetan izena emateko, sufragio unibertsalerako eskubidea erabiltzeko eta agintaldi zein eginkizun hautetsietarako hautagaiak izateko.
- Alderdi eta talde politikoei eskatuko die emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatuaren printzipioa ezartzeko.
- Horretarako, alderdi eta talde politikoei eskatuko die behar besteko legezko neurri guztiak hartzeko eta kuotak ezartzeko, beharrezkoa izanez gero. Horrela, bada, emakume gehiago izango dira hautagaiak eta hautetsiak.

- Bere prozeduren arauak eta jokabide-arauak zehaztuko dituzte, emakume hautagaiak eta hautetsitako ordezkariak jokabide edo hizkuntza estereotipoen edo edonolako jazarpenaren eraginpean egon ez daitezzen.
- Behar besteko neurriak hartuko ditu, hautetsitako ordezkariak bizitza pribatua, profesionala eta publikoa bateratzeko aukera izan dezaten. Esate baterako, bermatu egingo du ordutegiak, lan-metodoak eta seme-alabentzako eta euren ardurapekoentzako haurtzaindegiak eginkizun guztietan bete-betean parte hartzeko modukoak direla.

5. Sinatzaileak ordezkariaren printzipioa sustatu eta ezarri egingo du, erabakiak hartzeko edo aholkularitza emateko organismoetan eta kanpoko edozein organotarako izendapenetan.

6. Nolanahi ere, oraindik emakumeen eta gizonen ordezkariaren orekaturik ez daukan agintaritzak goian aipatutako printzipioa ezarriko du. Horiek horrela, gutxiengo ordezkariaren duen sexuaren egoerak hobera egin ahal izango du.

7. Era berean, sinatzaileak ziurtatu egingo du ordezkarien izendapen edo aukeraketapean dauden postu publikoak edo politikoak ez direla berez sexu zehatz batentzat gordeko jarrera estereotipatuaren ondorioz.

3. artikulua – Bizitza politikoko eta gizarteko partaidetza

1. Gobernu sinatzaileak onetsi egiten du hiritarrek gai publikoetan parte hartzeko daukaten eskubidea oinarritzako printzipio demokratikoa dela eta emakumeek zein gizonen euren eskualdeko, udalerriko eta toki-erkidegoko gobernuan zein bizitza publikoan berdintasunean parte hartzeko eskubidea dutela.

2. Bertako gaietan jendaurrean parte hartzeko moduei dagokionez (esate baterako, aholkularitza-batzordeen, auzoko kontseiluen, partaidetza birtualaren edo partaidetzan oinarritutako plangintza-prozesuen bitartez), sinatzaileak oso kontuan hartu beharko du emakumeek eta gizonen berdintasunean parte hartzeko aukera izan behar dutela praktikan. Partaidetzak berdintasuna sustatzen ez badu, sinatzaileak metodo berriak garatu eta jarri beharko ditu abian, helburu hori lortu ahal izateko.

3. Sinatzaileak erkidegoko talde guztietako emakumeen eta gizonen partaidetza aktiboa sustatuko du bizitza politikoko eta gizartean, baina batez ere, gutxiengo taldeetako emakume eta gizonena, bestela baztertuta geratu litezke eta.

4. artikulua – Berdintasunerako konpromiso publikoa

1. Bere udalerriko edo lurraldeko ordezkari demokratikoa denez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa bizitza publikoan ezartzeko konpromiso publiko eta formala onartu beharko du sinatzaileak. Horrez gain:

- Erakunde ordezkari gorenean eztabaidatu eta berretsi ondoren, gutuna sinatu duela iragarri beharko du.
- Gutun honetan adierazitako betebeharrak ezarri beharko ditu, eta, aldian-aldian, berdintasunerako ekintza-planaren ezarpenean egindako aurrerapenen berri eman beharko du jendaurrean.
- Sinatzaileak eta agintaritzako hautetsiek agindu egin beharko dute genero-berdintasunarekin bat egingo dutela eta jokabide egokia erakutsiko dutela arlo horretan.

2. Sinatzaileak bere agintaldi demokratikoa erabiliko du, gainerako erakunde publiko eta politikoei, erakunde pribatuei eta gizarte zibileko erakundeek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea praktikan erabiltzeko neurriak hartu ditzaten.

5. artikulua – Erakunde bazkideekin garatutako lana, berdintasuna sustatzeko

1. Sinatzaileak sektore publiko eta pribatuko erakunde bazkide guztiekin eta gizarte zibileko erakundeekin batera lan egingo du, bere lurraldeko bizitzako arlo guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa bultzatzeko. Horretarako, gizarte-erakunde bazkideekin garatutako lankidetzak bilatuko du batez ere.

2. Sinatzaileak instituzio eta erakunde bazkideei eta gizarte-erakunde bazkideei galdetuko die berdintasunerako planaren prestaketari zein berrikuspenari buruz eta berdintasunarekin zerikusia daukaten beste gai garrantzitsu batzuei buruz.

6. artikulua – Estereotipoen gaitzespena

1. Ahal duen neurrian, gobernu sinatzaileak aurreiritziak, sexu baten edo bestearen nagusitasunean edo gutxiagotasunean oinarritutako irudiak, jarduerak eta esamoldeak edo emakumezkoen eta gizonezkoen zeregin estereotipatuak saihestu eta prebenitu egingo ditu.

2. Horretarako, sinatzaileak bermatu egingo du jendaurreko eta barruko komunikazioak konpromiso hori bete-betean betetzean duela eta bi sexuen irudi positiboak eta adibide positiboak sustatzen direla.

3. Prestakuntzaren bidez edo beste sistema batzuen bidez, sinatzaileak laguntzaileei lagunduko die jarrera zein jokabide estereotipatuak antzematen eta desagerrarazten, eta horren inguruko jokabidea bideratuko du.

4. Sinatzaileak jarduerak eta kanpainak egingo ditu, generoaren arloko estereotipoek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko borrokan daukaten zeregin kaltegarriaren inguruko kontzientzia sustatzeko.

7. artikulua – Administrazio egokia eta galdeketa

1. Sinatzaileak onartu egiten du emakumeen eta gizonen gaiak berdintasunez, inpartzialtasunez eta zuzentasunez eta epealdi egokian tratatu behar direla. Horrez gain:

- Eurengan eragina daukan eta eurentzat kaltegarria izan daitekeen banan-banako edozein erabaki hartu baino lehen, entzunak izateko eskubidea izango dute.
- Agintaritzak bere erabakiei buruzko arrazoiak eman beharko ditu.
- Eurengan eragina duten gaiei buruzko informazioa edukitzeko eskubidea daukate.

2. Sinatzaileak onetsi egiten du bere eskumenetan, politiken kalitatean eta erabakiak hartzeko prozesuan eragina daukan guztiak hobera egingo lukeela, horren guztiaren eraginpean dauden pertsonen alde aurretik galdetuz gero. Era berean, oso garrantzitsua da emakumeek eta gizonen unean uneko informazioa eskuratzeko eta jarduteko aukera bera izatea praktikan.

3. Beraz, sinatzailearentzat honako neurri hauek izango dira egokiak:

- Bermatu egin beharko du komunikaziorako eta informaziorako bideek emakumeen eta gizonen premiak hartzen dituztela kontuan eta informazioaren zein komunikazioaren teknologiak eskuratzeko aukera daukatela.
- Galdeketa daudenean, ziurtatu egin beharko du entzunak izateko aukera gutxien dituzten ikuspegiak galdeketa bertan hartzen direla kontuan eta partaidetza bermatzeko legezko ekintza positiboak egiten direla.
- Egokia denean, aparteko galdeketa egingo dizkie emakumeei.

BERDINTASUNERAKO ESPARRU OROKORRA

8. artikulua – Konpromiso orokorra

1. Bere eskumenen arloan, gobernu sinatzaileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eskubideak eta printzipioak onetsi, errespetatu eta sustatu egingo ditu, eta generoari lotutako oztopoei eta bereizkeriari aurre egingo die.

2. Gutun honetan adierazitako konpromisoak sinatzaileari ezarriko zaizkio, legez daukan boterearen arabera oso-osorik edo zatika dagokion lekuan bertan.

9. artikulua – Genero-balioespena

1. Bere eskumenen eremuan, sinatzaileak genero-balioespena egingo du, artikulua honetan xedatutakoaren arabera.

2. Horretarako, sinatzaileak bere genero-balioespenak ezartzeko programa jarriko du abian, bere lehentasunen, baliabideen eta egutegiaren arabera, eta berdintasunerako ekintza-planeari hartuko da kontuan.

3. Genero-balioespenek honako neurri hauek hartuko dituzte kontuan:

- Gaur egun abian dauden politikak, prozedurak, jarduerak eta ereduak berrikusiko dira. Horiek horrela, bertan bereizkeriarik dagoen, genero-estereotipoetan oinarrituta dauden eta emakumeen zein gizonen premia bereziak behar den moduan kontuan hartzen diren aztertu ahal izango da.
- Lehen adierazitako helburuetarako esleitutako finantza-baliabideak edo beste batzuk berrikusiko dira.
- Lehentasunak eta helburuak zehaztuko dira, berrikuspenetan sortutako gaiak jorratzeko eta zerbitzuen hornikuntza hobetzeko.
- Prozesuaren hasieratik, politika berrietarako edo aldatuetarako eta baliabideak esleitzeko prozeduretarako eta aldatetarako edozein proposamen adierazgarri aztertuko da, emakumeengan eta gizonengan daukan eragina antzemateko eta azterketa horren arabera azken erabakiak hartzeko.
- Bereizkeria edo zailtasun anitzak jasaten dituzten premiak edo interesak hartuko dira kontuan.

10. artikulua – Bereizkeria anitzak edo oztopoak

1. Gobernu sinatzaileak onetsi egiten du honako arrazoi hauengatik bereizkeria debekatuta dagoela: sexua, arraza, jatorri soziala edo etnikoa, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo sinesmenak, iritzi politikoak edo beste era bateko iritziak, gutxiengo nazional bateko kideztza, jabetza, jaiotza, ezintasuna, adina edo orientazio sexuala.

2. Hori horrela izanik ere, sinatzaileak onartu egiten du emakume eta gizon askok bereizkeria anitzak jasaten dituztela, oztopoak aurkitzen dituztela eta desabantaila sozio-ekonomikoek eragin zuzena daukatela gutun honetan zehaztutako gainerako eskubideak erabiltzeko duten gaitasunean bertan.

3. Bere eskumenen eremuan, sinatzaileak behar besteko neurriak hartuko ditu, bereizkerien eta oztopoen eraginei aurre egiteko. Horrez gain:

- Ziurtatu egingo du bereizkeria anitzak, oztopoak eta genero-balioespenak berdintasunerako ekintza-planean jorratuko direla.
- Bermatu egingo du bereizkeria anitzek eta oztopoek eragindako gaiak gutun honetako gainerako artikuluetan zehaztutako ekintzen edo neurrien ezarpenean hartuko direla kontuan.
- Neurri bereziak hartuko dituzte, etorkinen premia bereziei erantzuteko.

ENPLEGU-EMAILEAREN ZEREGINA

11. artikulua

1. Enplegu-emaile moduan dituen eginkizunetan, gobernu sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonen eskubide berbera daukatela laneko arlo guztietan, bai eta lanaren antolamenduan zein lan-baldintzetan ere.

2. Sinatzaileak onetsi egiten du bizitza profesionala, soziala eta pribatua bateratzeko eskubidea eta laneko duintasunerako zein segurtasunerako eskubidea errespetatu behar direla.

3. Legez dituen botereen barruan, sinatzaileak behar besteko neurriak hartuko ditu, goian aipatutako eskubideak zehaztu ahal izateko.

Hona hemen 3. puntuan azaldutako neurriak:

(a) Erakundeetan bertan, lan-arloko politikak eta prozedurak berrikusiko ditu, eta berdintasunerako planeko “lan-arloa” garatuko du, epealdi egokian desberdintasunei aurre egin ahal izateko. Horretarako, honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan, besteak beste:

- Soldaten berdintasuna, bai eta lan baliokiderako soldata berdina ere.

- Soldatak, ordainsariak, ordainbideak eta erretiro-aukerak berrikusteko xedapenak.
- Karrerako garapenerako aukerak eta promozioa ekitatez eta gardentasunez bermatzeko neurriak.
- Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua maila guztietan bermatzeko neurriak, eta, batez ere, goi-mailetan zein zuzendaritzako mailetan edozein desoreka zuzentzeko neurriak.
- Generoan oinarritutako bereizketa profesionalari aurre egiteko eta langileek ezohiko postuak eskatzeko eta betetzeko neurriak.
- berdintasunezko kontratazioa ziurtatzeko neurriak.
- Osasunerako arriskurik gabeko eta segurtasun osoko lan-baldintza egokiak bermatzeko neurriak.
- Langileei eta euren sindikatuak galderak egiteko prozedurak eta aholkularitza edo negoziaketa erakundeetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua ziurtatzeko prozedurak.

(b) Lantokietan, jazarpen sexuala debekatuko du. Horretarako, jokabide horren onartezintasunari buruzko adierazpen publikoa egingo du, biktimei emandako babesaren berri emango du eta politika gardenak jarriko ditu abian, errudunak nola tratatu behar diren eta gai horren inguruko kontzientzia sortzeko nolako ahaleginak egiten diren azaltzeko.

(c) Konposizio pertsonala bilatuko du maila guztietan, tokian tokiko biztanleen aniztasun sozial, ekonomiko eta kulturalaren arabera.

(d) Bizitza profesionala, soziala eta pribatua bateratzeko laguntza emango du. Horretarako:

- Beharrezkoa denean, laneko ordutegia egokitzeko eta langileen menpe dauden pertsonen laguntzeko aukera eskaintzen duten politikak ezarriko ditu.
- Gizonei esango die euren ardurapeko pertsonen laguntzeko asmoz lanera ez joateko daukaten eskubidea erabiltzeko.

LEHIAKETA ETA KONTRATU PUBLIKOAK

12. artikulua

1. Gobernu sinatzaileak onartu egiten du ondasunak eta zerbitzuak hornitzean, produktuak erosteko kontratuak sinatzean eta lanak egitean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu behar duela.

2. Sinatzaileak onetsi egiten du erantzukizun hori oso berezia dela beste erakunde juridiko bati zerbitzu publiko garrantzitsua eman behar zaionean eta legearen arabera sinatzailea bera erantzulea denean. Halakoetan, sinatzaileak bermatu egingo du kontratua jasotzen duen erakunde juridikoak (bere estatus juridikoa edonolako dela ere) emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko duela, sinatzailea bera zerbitzu-emailea izan balitz egingo zuen bezalaxe.

3. Horrez gain, sinatzaileak honako neurri hauek ere ezarriko ditu, egokiak iruditzen zaizkionean:

(a) Sinatu beharreko kontratu adierazgarri guztietan, genero-inplikazioak eta kontratu horrek legezko berdintasunaren sustapenerako eskaintzen dituen aukerak hartu beharko ditu kontuan.

(b) Kontratuaren xedapenek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren helburuak kontuan hartzen dituztela bermatu beharko du.

(c) Kontratuaren gainerako terminoek eta baldintzek helburuok kontuan hartzen dituztela ziurtatu beharko du.

(d) Europako legeriak eskaintza publikoen gainean emandako botereak erabiliko ditu, gizarte gaietako errendimenduaren baldintzak zehazteko.

(e) Eskaintza publikoen eta alokairuko kontratuen ardura daukaten lan-kontratuko langileak edo aholkulariak sentsibilizatu beharko ditu genero-berdintasunaren inguruan, eta arlo horretako prestakuntza jasotzen dutela bermatu beharko du.

(f) Kontratu nagusiko baldintzetan, bermatu egin beharko du azpikontratista guztiak behar besteko betebeharrak betetzen dituztela, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

ZERBITZU-EMAILEAREN ZEREGINA

13. artikulua – Hezkuntza eta etengabeko prestakuntza

1. Gobernu sinatzaileak onetsi egiten du guztiek hezkuntzarako eskubidea dutela eta etengabeko lanbide-prestakuntza jasotzeko eskubidea dutela. Sinatzaileak onartu egiten du hezkuntzarako eskubidea oso-oso garrantzitsua dela bizitzako etapa guztietan. Horiek horrela, benetako aukera-berdintasuna bermatuko da, bizitzarako zein lanerako oinarritzko trebetasunak lortuko dira eta lanbidea garatzeko aukera berriak sortuko dira.

2. Bere eskumenen eremuan, sinatzaileak etengabeko lanbide-prestakuntza eskuratzeko aukera bera bermatuko die emakumei eta gizoni, neskei eta mutilei.

3. Sinatzaileak onartu egiten du edozein kontzeptu estereotipatu desagerrarazi beharra dagoela emakumeek eta gizonen hezkuntza-modu guztietan dituzten zereginetatik. Hori lortzeko, honako neurri hauek hartu edo sustatuko ditu:

- Hezkuntzako materiala, eskolako programak, beste era bateko programak eta irakaskuntza-metodoak berrikusiko ditu, jarrera eta jarduera estereotipatuen aurkakoak izan ez daitezten.
- Ekintza bereziak ezarriko ditu, ezohiko ikasketen aukeraketa sustatzeko.
- Gizarte-hezkuntzarako eta hiritarren hezkuntzarako ikastaroetan, zenbait osagai ezarriko ditu, emakumeek eta gizonen prozesu demokratikoan berdintasunezko partaidetza izatea oso garrantzitsua dela nabarmentzeko.

4. Sinatzaileak onetsi egiten du umeentzat eta gazteentzat oso eredu garrantzitsua dela nola dauden zuzenduta eskolak eta beste hezkuntza-zentro batzuk. Beraz, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuak sustatuko du ikastetxeetako zuzendaritzako eta gobernu maila guztietan.

14. artikulua - Osasuna

1. Sinatzaileak onetsi egiten du pertsona guztiek osasun fisiko eta psikiko onaz gozatzeko eskubidea dutela eta egiaztatu egiten du emakumeentzat eta gizonentzat ezinbestekoa dela medikuntzako prestazioak, kalitateko tratamenduak eta prebentzioa eskuratzeko aukera izatea, eskubide hori betearazi ahal izateko.

2. Sinatzaileak onartu egiten du medikuntzako eta osasuneko zerbitzuek emakumeen eta gizonen premia desberdinak hartu behar dituztela kontuan, emakumeek eta gizonen osasun onaz gozatzeko daukaten aukera-berdintasuna bermatu ahal izateko. Horrez gain, onetsi egiten du premia horiek alde biologikoen ondorioak ez ezik, bizi zein lan baldintzen eta jarrera zein jokabide estereotipatuen ondorioak ere badirela.

3. Erantzukizunak dituen lekuan, sinatzaileak behar besteko ekintza guztiak garatuko ditu, hiritarrei ahalik eta osasun-maila onena ziurtatzeko. Horretarako, sinatzaileak honako neurri

hauek hartu edo sustatu egingo ditu:

- Genero-ikuspegia hartuko du kontuan, plangintza egiteko orduan, baliabideak esleitzeko orduan eta medikuntza zein osasun arloko zerbitzuak hornitzeko orduan.
- Bermatu egingo du osasuna, elikadura egokia eta ariketa fisikoaren garrantzia sustatzeko jarduerak emakumeen eta gizonen premiak eta jarrerak hartzen dituztela kontuan.
- Ziurtatu egingo du osasun-arloan eta osasunaren sustapenean lan egiten dutenek onartu egiten dutela generoak era guztietako eraginak dituela medikuntza zein osasun arloko zainketetan eta emakumeek nahiz gizonek esperientzia desberdina dutela horrelako zainketetan.
- Bermatu egingo du emakumeek eta gizonek osasunari buruzko gaien gaineko informazio egokia jasotzeko aukera dutela.

15. artikulua – Zainketa eta zerbitzu sozialak

1. Gobernu sinatzaileak onartu egiten du beharrezko gizarte-zerbitzuak egon behar direla eta, beharrezkoa izanez gero, gizarte-zerbitzuen laguntza eskaini beharra dagoela.

2. Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeek eta gizonek premia desberdinak dituztela, baldintza ekonomiko eta sozialen nahiz beste faktore batzuen ondorioz. Hori dela eta, emakumeei eta gizonei gizarte-laguntza eta gizarte-zerbitzuak eskuratzeko aukera bera bermatzeko, erakunde sinatzaileak honako hau ziurtatzeko besteko neurri guztiak hartu beharko ditu:

- Genero ikuspegia hartuko du kontuan, plangintza egiteko orduan eta gizarte-laguntza zein gizarte-zerbitzuak finantzatu eta eskaintzeko orduan.
- Bermatu egingo du gizarte-laguntzak eta gizarte-zerbitzuak ematen dituzten guztiek onetsi egiten dutela generoak era guztietako eraginak dituela horrelako zerbitzuetan eta emakumeek nahiz gizonek esperientzia desberdina dutela horrelako zerbitzuetan.

16. artikulua – Adingabeen zainketa

1. Gobernu sinatzaileak onartu egiten du adingabeak zaintzeko kalitate oneko sistemek zeresan handia daukatela emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren sustapenean eta euren bizitza profesionala, publikoa eta pribatua bateratzeko daukaten gaitasunean, beti ere arlo ekonomikoari begira bideragarriak badira eta gurasoentzat nahiz umeez arduratzen direnentzat eskuragarriak badira, euren finantza-egoera edonolakoa bada ere. Horrez gain, sinatzaileak onetsi egiten du adingabeak zaintzea oso garrantzitsua dela bizitza ekonomikoari eta sozialari begira, gizarte-lotunea sortzen duelako toki-erkidegoan zein gizarte osoan.

2. Sinatzaileak zainketarako sistema horiek zuzenean edo beste zerbitzu-emaile batzuen bitartez hornitu eta sustatu egingo ditu eta behar besteko lehentasuna emango die. Horrez gain, beste eragile batzuen esku utziko ditu sistema horiek, bai eta tokian tokiko enplegu-emaileek zainketa-sistemari emandako laguntza ere.

3. Sinatzaileak onartu egiten du emakumeek zein gizonek eta gizarte osoak adingabeen hezkuntzan parte hartu behar dutela. Era berean, genero-estereotipoei aurre egingo die, euren arabera emakumeen ardura baino ez omen delako umeak zaintzea.

17. artikulua – Beste pertsona batzuen zainketa

1. Sinatzaileak onartu egiten du emakumeek eta gizonek euren ardurapeko pertsonak eta adingabeak zaindu behar dituztela eta erantzukizun horrek eragin handia izan dezakeela gizartean daukaten zeregina bete-betean garatzeko gaitasunean.

2. Sinatzaileak onartu egiten du erantzukizun hori sarriegitan uzten dela emakumeen esku eta oztopo ikaragarria dela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko orduan.

3. Sinatzaileak behar den moduan aurre egingo dio desberdintasun horri:

- Bere lehentasunen artean, arlo ekonomikoari begira bideragarriak diren kalitate handiko zainketa-sistemak zuzenean edo beste zerbitzu-emaile batzuen bitartez betearazi eta sustatu egingo ditu.
- Arlo horretan dituen erantzukizunen arabera, gizarte-isolamendupean bizi direnei lagunduko die eta behar besteko aukerak eskainiko dizkie.
- Estereotipoen aurkako kanpainak antolatuko ditu, ardurapeko pertsonak zaintzea emakumeen lehen erantzukizuna dela adierazten dute eta.

18. artikulua - Gizarteratzea

1. Gobernu sinatzaileak onetsi egiten du pertsona guztiak txirotasunaren zein gizarte-bazterketaren aurka babestuak izateko eskubidea daukatela eta, oro har, emakumeek gizonek baino gizarte-bazterketa handiagoa jasaten dutela, gizonek baino aukera gutxiago dituztelako baliabideak, ondasunak, zerbitzuak eta abaguneak eskuratzeko orduan.

2. Beraz, bere zerbitzu eta erantzukizun guztietan, bere bazkide guztiekin batera lan eginda, sinatzaileak behar besteko neurriak hartuko ditu oro har koordinatuta dagoen hurbilketaren esparruan, honako helburu hauek betetzeko asmoz:

- Gizarte-bazterketan edo txirotasunean bizi diren edo bizi daitezkeen pertsonentzat honako arlo hauetarako sarbide eraginkorra sustatzea: lana, etxebizitza, prestakuntza, hezkuntza, kultura, informazioa, komunikazioaren teknologiak eta gizarte zein medikuntza arloko laguntza.
- Gizarte-bazterketan bizi diren emakumeen premia bereziak eta egoera onestea.
- Etorrinen gizarteratzea bultzatzea, euren premia bereziak kontuan hartuta.

19. artikulua - Etxebizitza

1. Sinatzaileak onartu egiten du pertsonak etxebizitzarako eskubidea daukatela eta egiaztatu egiten du kalitate oneko etxebizitza eskuratzeko aukera oinarritzko premietako bat dela gizabanakoaren zein familiaren ongizatea erdiesteko orduan.

2. Sinatzailek onetsi egiten du batzuetan emakumeek eta gizonek premia bereziak eta desberdinak dituztela etxebizitzaren arloan eta bete-betean hartu behar direla kontuan. Izan ere:

- (a) Batez beste, emakumeek gizonek baino diru-sarrera gutxiago eta finantza-baliabide gutxiago dituztenez, euren baliabideen araberako etxebizitzak behar dituzte.
- (b) Guraso bakarreko familia gehienetako buruak emakumeak direnez, gizarte-etxebizitzak eskuratu beharrean daude.
- (c) Egoera zaugarrian bizi diren gizonak larregi ordezkaturik daude, etxebizitza finkorik gabeko (EFG) pertsonen artean.

3. Sinatzaileak honako konpromiso hauek hartuko ditu:

- (a) Ezinbesteko zerbitzuak eskuragarriak diren lekuan, maila eta tamaina egokiak dituen etxebizitza eskuratzeko aukera sustatzea.
- (b) Behar besteko neurriak hartzea, etxebizitza-gabezia prebenitzeko eta etxebizitzarik ez dutenei laguntzeko, premiaren, zaugarritasunaren eta ez-

bereizkeriaren irizpideetan oinarrituta.

(c) Bere eskumenen arabera, etxebizitzaren prezioan bertan esku hartzea, behar beste baliabiderik ez dutenentzat eskuragarriak izan daitezzen.

4. Sinatzaileak ziurtatu edo sustatu egingo du emakumeek eta gizonek jabetza bateko errentatzaile, jabe edo titular izateko edo beste era bateko edukitza izateko eskubide bera daukatela. Horrez gain, bere eskumena edo eragina erabiliko du, emakumeek etxebizitza erosteko mailegua eta beste finantza-laguntza batzuk lortzeko aukera bera izan dezaten.

20. artikulua - Kultura, kirolak eta astialdia

1. Sinatzaileak onartu egiten du emakumeek eta gizonek bizitza kulturalean parte hartzeko eta bizitza artistikoaz gozatzeko eskubidea daukatela.

2. Sinatzaileak onartu egiten du kirolaren bidez erkidegoko bizimodua aberasten dela eta osasunerako eskubidea bermatzen duela, 14. artikuluan adierazitakoaren arabera. Era berean, onetsi egiten du emakumeek eta gizonek eskubide berbera dutela kultura, kirol eta astialdi arloko jarduerak egin eta instalaziook erabiltzeko orduan.

3. Sinatzaileak onartu egiten du emakumeek eta gizonek esperientzia eta interes desberdinak dituztela kulturaren, kirolen eta astialdiaren arloan eta jarrera estereotipatuaren nahiz ekintza sexuatuaren ondorioak izan daitezkeela. Hori dela eta, honako neurri hauek hartu edo sustatu egingo ditu, beharrezkoa denean:

- Emakumei, gizonei, mutili eta neskei ziurtatuko die kirol, kultura eta astialdi arloko instalazioak erabili eta arlo horietako jarduerak egiteko aukera berberak dituztela.
- Emakumei, gizonei, mutili eta neskei eskatuko die kirolean eta kultura-arloko jardueretan berdintasunean parte hartzeko, tradizioaren arabera “emakumeentzat” edo “gizonentzat” direla adierazi arren.
- Arte, kultura eta kirol arloko elkarteei eskatuko die emakumeen eta gizonen ikuspegi estereotipatua kritikatzeko duten kultura eta kirol arloko jarduerak bultzatzeko.
- Liburutegi publikoei eskatuko die euren liburuen katalogoan eta beste agiri batzuetan eta gainerako sustapen-jardueretan genero-estereotipoak kritikatzeko.

21. artikulua - Segurtasuna

1. Sinatzaileak onartu egiten du emakume eta gizon guztiek euren segurtasunerako eta mugimendu-askatasunerako eskubidea daukatela eta eskubide horiek ezin direla eremu publikoan eta pribatuan bete-betean edo modu berean erabili, emakumeak eta gizonak segurtasunik ezaren biktimak badira edo euren segurtasuna mehatxupean badago.

2. Sinatzaileak onetsi egiten du betebeharren eta bizimodu desberdinen ondorioz emakumeek eta gizonak sarritan segurtasunarekin zerikusia daukaten arazoei aurre egin behar dietela eta arazo horiek behar den moduan tratatu behar direla.

3. Beraz, sinatzaileak honako konpromiso hauek hartuko ditu:

(a) Generoa kontuan hartuta, ezbeharren kopuruari eta motei buruzko estatistikak aztertuko ditu (bai eta pertsonaren aurkako krimen larriak ere), beti ere emakumeen eta gizonen segurtasunean eraginik badute. Era berean, beharrezkoa denean, kriminaltasunaren edo segurtasunik ezaren beste iturri batzuen inguruan sortutako beldurraren maila eta ezaugarriak aztertuko ditu.

(b) Estrategiak, politikak eta ekintzak garatu eta ezarri egingo ditu, eta hobekuntza bereziak egingo ditu ingurunearen egoeran edo eraketan (horra hor garraioen lotuneak, aparkalekuak, argi publikoak), poliziaren zaintza eta beste zerbitzu batzuk bermatzeko, emakumeen eta gizonen segurtasuna praktikan handitzeko eta segurtasunik ezaren sentazioari aurre egiteko.

22. artikulua – Genero-indarkeria

1. Sinatzaileak onartu egiten du emakumeengan larregizko eragin ikaragarria daukan genero-indarkeriak oinarritzko giza eskubidea urratzen duela eta gizakien duintasuna zein osotasun fisiko eta morala iraintzen dituela.

2. Sinatzaileak onartu egiten du botere-harreman desberdinaren testuinguruan erasotzaileak sexu bat bestearen gainetik dagoela uste duelako sortzen dela genero-indarkeria.

3. Hori dela eta, sinatzaileak genero-indarkeriaren aurkako politikak eta ekintzak ezarri eta sendotu egingo ditu. Horrez gain:

- Biktimei laguntzeko eta biktimak sorosteko egiturak sortuko ditu edo sortzen lagunduko du.
- Tokian-tokian erabilitako hizkuntza nagusi guztietan, eskuragarria dauden laguntzen informazioa emango du jendaurrean.
- Ziurtatu egingo du talde profesionalak prestatu direla, biktimak antzemateko eta sorosteko.
- Sentsibilizazio-kanpainak eta hezkuntza-programak sustatuko ditu, unean uneko

edo balizko biktimentzat zein erasotzaileentzat.

23. artikulua – Gizakien trafikoa

1. Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeengan nahiz nerabeengan larregizko eragin ikaragarria daukan gizaki-trafikoaren delituak oinarrizko giza eskubidea urratzen duela eta gizakien duintasuna zein osotasun fisiko eta morala iraintzen dituela.

2. Hori dela eta, sinatzaileak gizakien trafikoa prebenitzeko politikak eta ekintzak ezarri eta sendotu egingo ditu. Horrez gain:

- Informazioa eskaini eta sentsibilizazio-kanpainak sustatuko ditu.
- Prestakuntza-programak antolatuko ditu biktimak antzeman eta sorosten dituzten talde profesionalentzat.
- Eskaria bultzatzeko neurriak hartuko ditu.
- Biktimei laguntzeko neurri egokiak hartuko ditu, medikuntzako tratamendua jaso dezaten, etxebizitza egokia bezain segurua eskuratu dezaten eta interpreteen laguntza eduki dezaten.

PLANGINTZA ETA GARAPEN IRAUNKORRA

24. artikulua – Garapen iraunkorra

1. Sinatzaileak onetsi egiten du garapen iraunkorraren printzipioak bete-betean errespetatu behar direla lurraldearen etorkizunerako plangintza eta estrategiak garatzeko orduan. Era berean, onartu egiten du plangintza eta estrategia horiek ekonomia, gizarte, ingurumen eta kultura arloko dimentsio orekatua kontuan hartu behar dutela, bai eta emakumeen zein gizonen arteko berdintasunaren premia ere.

2. Beraz, sinatzaileak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa hartuko du kontuan, lurraldearen garapen iraunkorrari begira plangintzaren edo estrategien garapenaren oinarrizko dimentsioa da eta.

25. artikulua – Hiriko eta tokian tokiko plangintza

1. Sinatzaileak onartu egiten du oso garrantzitsua dela bere espazioa, garraioak, ekonomia eta lurzorua erabiltzeko planak eta politikak garatzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea egia bihurtzeko moduko baldintzak sortu ahal izateko.

2. Sinatzaileak bermatu egiten du politika eta plan horiek sortu, egin, onartu eta ezartzeko orduan:

- Benetako berdintasuna tokian tokiko bizitzako alderdi guztietan sustatuko dela.
- Emakumeen eta gizonen premia bereziak kontuan hartuko direla. Esate baterako, lana, zerbitzuak eta bizitza kulturala eskuratzeko aukera, hezkuntza eta familiako erantzukizunen betearazpena. Horretarako, tokian tokiko datu interesgarriak edo beste batzuk eta erakunde sinatzaileak egindako genero-balioespenak hartuko dira kontuan.
- Emakumeen eta gizonen premiak aintzat hartzen dituzten egokitzapen handiak egingo direla.

26. artikulua – Mugikortasuna eta garraioa

1. Sinatzaileak onetsi egiten du mugikortasuna eta garraioak oinarritzeko baldintzak direla emakumeek eta gizonen eskubide asko, lanak, jarduerak, enplegua, hezkuntza, kultura eta funtsezko zerbitzuak betearazteko aukera izan dezaten. Era berean, onartu egiten du udalerrri edo eskualde baten garapen iraunkorra eta arrakasta kalitate handiko garraio-zerbitzu publiko eraginkorraren eta azpiegituren garapenaren eraginpean daudela.

2. Sinatzaileak onetsi egiten du batzuetan emakumeek eta gizonen premia eta ohitura desberdinak dituztela praktikan joan-etorrien eta garraioen arloan, zenbait faktoreren ondorioz (diru-sarrerak, seme-alabekiko eta euren ardurapeko beste pertsona batzuekiko erantzukizunak edo lan-ordutegiak). Hori dela eta, emakumeek gizonen baino gehiagotan erabiltzen dituzte garraio publikoak.

3. Beraz, sinatzaileak honako konpromiso hauek hartuko ditu:

- (a) Oso kontuan hartuko ditu emakumeek eta gizonen joan-etorrietan eta garraioen (hiriko eta landa-inguruneko garraio publikoen) erabileran dituzten premia desberdinak.
- (b) Bere lurraldeko hiritarrei eskainitako garraio-zerbitzuak lagungarriak izan behar dira, emakumeen eta gizonen premia bereziei zein premia bateratuei erantzun ahal izateko eta tokian tokiko bizimoduan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortu ahal izateko.

4. Sinatzaileak bere lurraldeko garraio publikoen eta lotune intermodalen hobekuntza sustatuko du, emakumeek eta gizonek garraioaren arloan dauzkaten premia bereziei eta premia bateratuei erantzun ahal izateko. Bestetik, erregularrak, ekonomiari begira bideragarriak, seguruak edo irisgarriak izan beharko dira, eta garapen iraunkorra sustatu beharko dute.

27. artikulua – Garapen ekonomikoa

1. Sinatzaileak onartu egiten du garapen ekonomiko orekatua bezain iraunkorra lortzea ezinbestekoa dela udalaren edo eskualdearen arrakastari begira eta arlo horretan garatutako jarduerak eta zerbitzuek ikaragarri sustatu dezaketela emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneranzko aurrerapena.

2. Sinatzaileak onetsi egiten du emakumeen lanaren maila eta kalitatea areagotu beharra dagoela eta iraupen luzeko langabeziarekin zein ordainsaririk gabeko lanarekin lotutako txirotasun-arriskua oso handia dela emakumeen artean.

3. Garapen ekonomikoarekin zerikusia daukaten jarduerari eta zerbitzuei dagokienez, sinatzaileak oso kontuan hartuko ditu emakumeen eta gizonen premiak eta interesak, bai eta berdintasunera iristeko eta neurri egokiak hartzeko moduko aukerak ere. Ekintza horien bidez:

- Emakume enpresariei lagunduko die.
- Enpresei finantza-laguntza eta beste era bateko laguntza ematean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dela ziurtatuko du.
- Prestatzen ari diren emakumeei eskatuko die “gizonentzakoak” izan ohi diren lanpostuen lorpenerako trebetasunak eta gaitasunak garatzeko eta eskuratzeko eta alderantziz.
- Enplegu-emaileei eskatuko die prestatzen ari diren edo bekadunak diren emakumeak kontratatzeke, “gizonenak” izan ohi diren trebetasunak eta gaitasunak dituztenean, eta horren arabera lanpostuak eskaintzeko, eta alderantziz.

28. artikulua - Ingurumena

1. Sinatzaileak onetsi egiten du bere lurraldeko ingurumenaren kalitatea hobetu behar duela, bai eta hondakinei, zaratari, airearen kalitateari, biodibertsitateari eta eguraldi-aldaketaren eraginari buruzko toki-politikak ere. Horrez gain, onartu egiten du emakumeek eta gizonek ingurumenaren arloko zerbitzuek eta politikez gozatzeko legezko eskubidea daukatela.

2. Sinatzaileak onetsi egiten du hainbat eta hainbat lekutan emakumeen eta gizonen bizimoduak desberdinak direla, emakumeek eta gizonek toki-zerbitzuak eta atari zabaleko eremuak modu desberdinean erabiltzen dituztela edo ingurumen-arloko arazo desberdinak dituztela.

3. Horren ondorioz, ingurumen-arloko politiken eta zerbitzuen garapenari dagokionez, sinatzaileak modu berean eta bete-betean kontuan hartuko ditu emakumeen eta gizonen bizimoduekin lotutako premia bereziak eta belaunaldien arteko elkartasunaren printzipioa.

ARAUTZEKO ZEREGINA

29. artikulua – Toki-gobernu arautzaileak

1. Bere lurraldeko jarduerak arautzen dituzenez, bere zereginak eta eskumenak betearazteko orduan, gobernu sinatzaileak onartu egiten du kontsumitzaileen babeserako arauketa eraginkorrek garrantzi handia daukela tokian tokiko biztanleen segurtasunari zein ongizateari eusteko orduan eta arauketak eragin desberdina izan dezakeela emakumeengan zein gizonengan.

2. Arautzeko zereginak betearaztean, sinatzaileak oso kontuan hartuko ditu emakumeen eta gizonen premia, interes eta baldintza bereziak.

SENIDETZEA ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZA

30. artikulua

1. Sinatzaileak onetsi egiten du nolako balioa daukaten tokian tokiko eta eskualdeko kolektibitateen senidetzeak, lankidetzak europarrak eta nazioarteko lankidetzak, hiritarrak hurbiltzeko eta muga nazionaletatik haratago elkarrekiko ulermena eta ezagutzen trukea sustatzeko.

2. Sinatzaileak honako konpromiso hauek hartuko ditu, senidetzeko eta lankidetzak europarra zein nazioartekoa bultzatzeko jarduerari dagokienez:

- Leku desberdinetako emakumeak eta gizonak berdintasunez inplikatu dituzten jarduerari horietan.
- Senidetzeko harremanak eta garapenerako lankidetzak europarrak zein nazioartekoak erabiliko dituzten, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko esperientziak eta ezagutzak trukatzeko.
- Genero-dimentsioa hartuko du kontuan, deszentralizatutako lankidetzak-ekintzak abian jartzeko orduan.